Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko martxoaren 27a, astelehena — 59 — Lunes, a 27 de marzo de 2023



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Ingurumen Txosten Estrategikoa, Idiazabalgo (OB) EZ.01 eta (OB) EZ.02 guneen Hiri Antolamenduko Plan Bereziarena.*

1. *Aurrekariak.*

2022ko urriaren 25eko idazkiaren bidez, Idiazabalgo Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari eskatu zion izapidetzen has zedin Eziolatza (OB) EZ.01 eta (OB) EZ.02 guneen hiri antolamenduko plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua. Eskaerarekin batera, Udalak plan bereziaren zirriborroa eta haren ingurumen dokumentu estrategikoa bidali ditu.

(OB) EZ.01 eta (OB) EZ.02 Eziolatza guneen hiri antolamenduko plan bereziari ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin behar zaio, bete egiten baitira 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren, 6.2.b) edo 6.2.c) artikuluetan ezarritako baldintzak, baita 10/2021 Legearen, abenduaren 9koaren, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoaren, II.B eranskineko 1. edo 3. apartatuan ezarritako inguruabarrak ere.

Beraz, prozedura horretan, eta ukitutako administrazioen, pertsonen eta instituzioen kontsulten izapidea egin ondoren, 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, 30. artikuluan xedatutakoa, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari dagokio ingurumen txosten estrategikoa egitea; bertan, 21/2013 Legearen V. eranskinean eta 10/2021 Legearen II.C. eranskinean ezarritako irizpideei jarraituz, eta egindako kontsulten emaitzak ikusita, ebatzi behar da plan bereziak eragin nabarmenak ekar diezazkiokeen ingurumenari eta, beraz, ingurumen ebaluazio estrategiko arrunta egin behar zaion, edo ez duen horrelako eraginik, ingurumen txosten estrategikoak zehaztutakoaren arabera.

2. *Plan berezian proposatutako helburuak eta antolamendua.*

Plan bereziaren xedea da (OB) EZ.01 eta (OB) EZ.02 Hirigintzako eremuak egokitzea, Hirigintzari dagokionez, eta jabearen (AMPO) eta Idiazabalgo Udalaren artean adostutako moduan, dagoeneko egindako urbanizazioa legezkotzeko, malda egiteko eta antolamendu berrian jabetzaren egitura egokitzeko garatu beharreko Hirigintzako egikaritze prozesuaren aurretik.

Beraz, Idiazabalgo HAPOan ezarritakoari dagokionez, honako hauek dira plan bereziak eremuaren antolamendu xehakatuan egindako aldaketa nagusiak:

— Kemen enpresatik eskuratutako partzela AMPOren gainerako partzela industrialarekin batu da, eta unitate funtzional bat eratu du; hortaz, bien artean gelditzen den bide publikoen zatia partzela pribatu bihurtu du, zentzua galtzen duelako proposatutako antolamendu berrian.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Informe Ambiental Estratégico del Plan Especial de Ordenación Urbana de las áreas (OB) EZ.01 y (OB) EZ.02 Eziolatza, en Idiazabal.*

1. *Antecedentes.*

Mediante escrito de 25 de octubre de 2022, el Ayuntamiento de Idiazabal ha solicitado a la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa el inicio de la tramitación de la evaluación ambiental estratégica simplificada del plan especial de ordenación urbana de las áreas (OB) EZ.01 y (OB) EZ.02 Eziolatza. Junto con la solicitud, el Ayuntamiento ha remitido el borrador del plan especial y su documento ambiental estratégico.

El plan especial de ordenación urbana de las áreas (OB) EZ.01 y (OB) EZ.02 Eziolatza debe ser objeto de una evaluación ambiental estratégica simplificada al darse las circunstancias establecidas en el artículo 6.2.b) o en el artículo 6.2.c) de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, y en el apartado 1 o en el apartado 3 del anexo II.B de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi.

Por tanto, en el marco de ese procedimiento, y tras la realización del trámite de consultas a las administraciones, personas e instituciones afectadas dispuesto en el artículo 30 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, corresponde a la Dirección General de Medio Ambiente emitir el informe ambiental estratégico, en el que, de conformidad con los criterios establecidos en el anexo V de la Ley 21/2013 y en el anexo II.C de la Ley 10/2021, y a la vista del resultado de las consultas realizadas, se determina si el plan especial puede producir efectos significativos sobre el medio ambiente, y, por tanto, debe someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, o no los tiene en los términos que establezca el informe ambiental estratégico.

2. *Objetivos y ordenación propuesta en el plan especial.*

El plan especial tiene por objeto proceder a la adecuación urbanística de los ámbitos urbanísticos (OB) EZ.01 y (OB) EZ.02, en los términos acordados entre la propiedad (AMPO) y el Ayuntamiento de Idiazabal, como paso previo al proceso de ejecución urbanística que es necesario desarrollar para legalizar la urbanización ya realizada, ejecutar la pendiente y adecuar la estructura de la propiedad a la nueva ordenación.

Así, en relación a la establecida en el PGOU de Idiazabal, las principales modificaciones introducidas por el plan especial en la ordenación pormenorizada del ámbito, son las siguientes:

— Se fusiona la parcela adquirida a la empresa Kemen con el resto de la parcela industrial de AMPO, constituyendo una unidad funcional, lo que implica la conversión en parcela privada de una parte del viario público que queda entre ambas y que queda sin sentido con la nueva ordenación propuesta.

EK\CV GAO-I-2023-01841

— Indarrean dagoen plangintzatik jasotako eraikigarritasuna txikitu egin da, jabetzak etorkizunean egikaritzeko modukotzat duenera arte: 3.120 m²s eraikuntza berri, egun materializatuta dagoenari gehitu beharrekoa.

— Eraikinaren gehieneko lerrokadurak doitu egin dira egikaritu daitekeela uste den azalera eraikigarri berrira.

— Gipuzkoako Urak erakundearen punpatze instalazioak arautu dira, AMPOren partzela industrialaren barnean, sestrapeko zortasun gisa.

— Urbanizazio publikoa amaitu da, sekzioan eta tratamenduan jarraitutasuna eman zaio, beraz, duela gutxi Oria ibaiaren gaineko bi zubien artean egikaritutako zatiko ibai ertzari.

— Jarduketa integratu bat ezarri da, AMPOren partzelak hartuko dituena, Hirigintzako eraldaketak ukitutako lurzoru publikoekin batera, eta ukitu gabeko eremuaren gainerako zatia (OB EZ.01) hiri lurzoru finkatu moduan gelditu da.

Ingurumen dokumentu estrategikoan egindako aukeren analisia hiru aukeratan oinarritu da. 0 aukerak (esku hartzerik ez) esan nahi du Idiazabalgo HAPOan jasotako Hirigintzako antolamendua finkatzea, eta baztertu egin da, ez lukeelako utziko AMPOren bi partzelak unitate funtzional bakarrean bateratzea, eta eraikigarritasuna handiegia izango litzatekeelako enpresaren beharretarako. 1. aukeraren abiapuntua da Hirigintzako aurreko plangintzatik jasotako eraikigarritasuna mantentzea (25.988 m²s), eta baztertu egin da AMPOren antolamenduko betekizunek eta betekizun funtzionalek ez dutelako behar egiteke dagoen eraikigarritasuna (6.186,76 m²s) goiko solairutan egitea; hortaz, guztia beheko solairutan egitea planteatu beharko litzateke, eta fisikoki ez da posible, ez baita hori, aparkalekuak, maniobra guneak eta zamalanetarakoak egiteko adina gelditzen eremuan. 2. aukera, hautatutakoa, etorkizunean handitzeak egiteko aukera errealen analisian oinarritu da, eta kontuan hartuta egikaritzeke dagoen eraikigarritasuna beheko solairuan egitea; hortaz, eraikuntza berriaren azalera 3.120 m²s izango litzateke. Eraikigarritasuna 0 eta 1. aukeretatik jaitsi egin da, beraz.

*3. Ukitutako administrazioei, interesdun pertsonei eta herritarrei oro har egindako kontsulta.*

21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta plan bereziaren eta ukitutako lurralde esparruaren ezaugarrietan oinarrituta, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak interesduntzat jo zituen honako administrazio eta erakunde hauek, eta haiei kontsulta egin zien. Horretarako, organo sustatzaileak sortutako dokumentazioa bidali zien.

— GFAko Kulturako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Errepideetako Zuzendaritza Nagusia.

— GFAko Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.

— Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.

— Se reduce la edificabilidad heredada del planeamiento vigente a los términos que la propiedad ha estimado que pueden ser ejecutables en el futuro, lo que se ha estimado en 3.120 m²t de nueva edificación que se sumaría a la actualmente materializada.

— Se reajustan las alineaciones máximas de la edificación a la nueva superficie edificable que se considera que puede llegar a ejecutarse.

— Se regulan las instalaciones de bombeo de Gipuzkoako Urak dentro de la parcela industrial de AMPO como una servidumbre bajo rasante.

— Se completa la urbanización pública, dando continuidad en sección y tratamiento al paseo de borde del río del tramo recientemente ejecutado entre los dos puentes sobre el río Oria.

— Se establece una actuación integrada que comprenda las parcelas de AMPO junto con los suelos públicos afectados por la transformación urbanística, dejando el resto del ámbito no afectado correspondiente (OB EZ 01) como suelo urbano consolidado.

En el análisis de alternativas que se efectúa en el documento ambiental estratégico se hace un análisis de tres opciones. La alternativa 0 (no intervención) que supondría la consolidación de la ordenación urbanística recogida en el PGOU de Idiazabal y que se descarta porque no permitiría la fusión de las dos parcelas de AMPO en una unidad funcional y porque la edificabilidad sería muy elevada para las necesidades de la empresa. La alternativa 1 parte del mantenimiento de la edificabilidad heredada del planeamiento urbanístico anterior (25.988 m²t) y se desecha porque los requisitos organizativos y funcionales de AMPO no necesitan que la ejecución de la edificabilidad pendiente de realizar (6.186,76 m²t) se lleve a cabo en plantas altas, con lo que se tendría que plantear en su totalidad en planta baja, lo cual físicamente no es posible al no haber superficie remanente suficiente en el ámbito para poder llevarla a cabo y tener que dar cabida también a aparcamientos y zonas de maniobras y carga y descarga. La alternativa 2 y seleccionada, se ha basado en un análisis de las posibilidades reales de ejecutar ampliaciones en el futuro, y teniendo en cuenta que la edificabilidad pendiente de realizar se lleve a cabo en planta baja, lo cual implica que la superficie de nueva construcción necesaria sería de 3.120 m²t, lo que supone una neta reducción de edificabilidad respecto a las alternativas 0 y 1.

*3. Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en artículo 30 de la Ley 21/2013, y basándose en las características del plan especial y del ámbito territorial afectado, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección General de Cultura de la DFG.

— Dirección General de Montes y Medio Natural de la DFG.

— Dirección General de Ordenación del Territorio de la DFG.

— Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial de la DFG.

— Dirección General de Obras Hidráulicas de la DFG.

— Dirección General de Carreteras de la DFG.

— Dirección General de Movilidad y Transporte Público de la DFG.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.

EK\CV GAO-I-2023-01841

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Hiri Agendako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Energiaren, Meategien eta Industriaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— Ihobe.

— Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

— URA Uraren Euskal Agentzia.

— Kantauriko Ur Konfederakundea.

— Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.

— Goieki (Goierriko Eskualdeko Garapen Agentzia).

— Goimen (Goierriko Landa Garapeneko Agentzia).

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Eguzki talde ekologista.

— Landarlan Ingurumen Elkartea.

— Ekologistak Martxan.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Horrez gain, dokumentazioa eskuragarri egon da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus), herritarrek eta interesdun orok egin beharreko ekarpenak egin zitzan ingurumenari dagokionez).

Behin epea amaitutakoan, eta txosten hau igorri arte, honako erantzun hauek jaso dira:

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak zehaztu du du ez diola beharrezko irizten horren inguruko txostena emateari.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak adierazi du plan bereziaren eremua Oriako gune horri dagokion 500 urteko errepikatze denborako orbanak ukitua dagoela, eta, beraz, administrazio hidraulikoaren baimenak xedatutakoaz gain, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Plan Hidrologikoko 40. artikuluak xedatutakoa ere bete egin beharko dela, uholde arriskua duten guneetako erabilera mugatzeari dagokionez. Instalazioak 500 urteko errepikatze denborako kota baino altuago jarri beharko dira.

Halaber, aipatu da eremua V-VI intentsitate gunean dagoela, Larrialdi Planaren arabera, arrisku sismikoari dagokionez. Horrenbestez, udalerria salbuetsita dago larrialdi sismikoko plan bat egitetik. Dena den, kontuan hartu beharko da 997/2002 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntza Sismoerresistentearen Araua. Salgai arriskutsuak garraiatzeari lotutako arriskuei dagokienez, adierazi du aldaketaren eremua 200 metroko eragin bandan dagoela N-I errepideari dagokionez (ertaintzat jotako arriskua) eta N-I errepideari dagokionez (baxutzat jotako arriskua), baina bideekiko lerro paralelo bat hartu behar dela kontuan, 600 metrokoa alde banatan, gune horretan hartu beharko bailitzateke esku baldintza txarretan. Azkenik, adierazi du aipatutako babes zibileko planak aintzat hartu behar direla plan bereziaren sustatzailea den jardueraren titularrak egin beharreko babes planean.

— Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco.

— Dirección de Ordenación del Territorio y Agenda Urbana del Gobierno Vasco.

— Dirección de Energía, Minas e Industria del Gobierno Vasco.

— Dirección de atención de emergencias y meteorología del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— Ihobe.

— Entre Vasco de la Energía (EVE).

— Agencia Vasca del Agua URA.

— Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Goieki (Agencia de Desarrollo comarcal de Goierri).

— Goimen (Agencia de Desarrollo Rural de Goierri).

— EHNE.

— ENBA.

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Grupo ecologista Eguzki.

— Landarlan Ingurumen Elkartea.

— Ekologistak Martxan.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Asimismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente, www.gipuzkoaingurumena.eus para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

— La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco señala que no considera necesario emitir informe al respecto.

— La Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco señala que el ámbito del plan especial se encuentra afectado por la mancha de inundabilidad de 500 años de periodo de retorno correspondientes a esa zona del río Oria, y que deberá de cumplirse, además de lo que disponga la autorización de la administración hidráulica, con lo dispuesto en el art. 40 del Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental en lo que se refiere a las limitaciones al uso en las zonas inundables, debiéndose ubicar las instalaciones en cotas superiores a la de 500 años de periodo de retorno.

Asimismo, señala que el ámbito se sitúa en la zona de intensidad V-VI según el Plan de Emergencias ante el riesgo sísmico, con lo cual el municipio está exento de realizar un plan de emergencia al respecto. No obstante, se deberá tener en cuenta la norma de construcción sismorresistente aprobada por el R.D. 997/2002. Respecto a los riesgos asociados al transporte de mercancías peligrosas, indica que el ámbito de la modificación se encuentra en la banda de afección de 200 m respecto a la carretera N-I (con riesgo calificado como medio) y respecto a la carretera N-I (con riesgo calificado como bajo), pero que se debe de considerar una línea paralela a las vías de 600 m a cada lado que sería la zona a intervenir en caso de accidente en condiciones adversas. Finalmente señala que los planes de protección civil mencionados se deben de contemplar en el plan de autoprotección que debe de elaborar el titular de la actividad que es el promotor del plan especial.

EK\CV GAO-I-2023-01841

— Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du planaren eremuan ez dela kultur ondarearentzako eraginik antzeman.

— GFAko Kulturako Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi du plan bereziaren esku hartzeko eremuan Eziolatza Azpikoa baserriko ustezko zona arkeologikoa dagoela, eta, beraz, bete egin beharko dela 6/2019 Legearen, maiatzaren 9koaren, Euskal Kultura Ondarearen, 65. artikuluan xedatutakoa (orubearen edo eraikuntzaren balio arkeologikoari eta obra proiektuak izan dezakeen eraginari buruzko azterketa).

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak iritzi dio komeni dela jasotako Hirigintzako garapen araudiak bosgarren tituluan (ingurumeneko eta sektoreko baldintzatzaileak) neurri zehatzak jasotzea erriberako landaredia babesteko (91E0* Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior ibarbasoak Batasunaren intereseko habitatarekin bat datorrena).

— Uraren Euskal Agentziak (URA) jakinarazi du mugapearen kudeaketako batasun eta uniformetasun printzipioari jarraituz, kontsulta Kantauriko Konfederazio Hidrografikora bidali dela, txostena egitea erabakiko balu ere. Bigarren idazkian, jakinarazi du plan berezian proposatutako jarduketa integratua Oria ibaiaren polizia gunean dagoela, eta egiaztatu dela eraikuntza berrietarako proposatutako gehieneko lerrokadurek bete egiten dituztela EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSan ezarritako atzeratzeak. Uholde arriskuari dagokionez, adierazi du handitzeke dagoen eraikigarritasuna duten partzelak uholde arriskuko gunetik kanpo daudela.

Hornidurari dagokionez, Kantauriko Konfederazio Hidrografikok adierazi du Idiazabalgo HAPOa izapidetzean bere nahitaezko erabakia eman zuela, zeinean justifikatu egin baitzen plan orokorrean proposatutako garapenen ondoriozko eskariei erantzuna bermatzeko baliabide hidrikoen jatorria eta eskuragarritasuna. Saneamenduari dagokionez, adierazi du dokumentazioan dagoeneko aurreikusitako zehaztapenez gain plan bereziaren planoek zedarritu egin beharko dituztela (OB) EZ.01 eta (OB) EZ.02 partzeletan dagoen saneamendu sarea eta etorkizunekoa, eta jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten edo haren zortasun edo polizia guneetan egindako jarduketa guztiek beharko dutela arroko organismoaren baimen administratiboa.

Jasotako erantzunek eta ekarpenek adierazitako alderdiak, plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoko prozeduraren berezko edukietan eta helburuetan eragiten dutenak, aztertu egin dira, eta kontuan hartu dira ingurumen txosten estrategiko honen apartatuetan.

Halaber, jasotako erantzun guztiak, eta txosten hau egin ondoren heltzen direnak, Idiazabalgo Udalera bidaliko dira, hala badagokio kontuan har ditzaten plan berezia egitean eta izapidetzean.

*4. 21/2013 Legearen, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren, V. eranskinean eta 10/2021 Legearen, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoaren, II.C eranskinean jasotako irizpideetan oinarritutako analisia.*

1. Plan bereziaren ezaugarriak:

Plan bereziak ez dakar Hirigintzako eraldaketara bideratutako lurzoru berria askorik handitzerik, indarreko HAPOaren antolamenduarekin alderatuta. Hortaz, plan bereziaren eremuan dauden lurzoru guztietatik, gehien-gehienak gaur egun dagoeneko antropizatuta daude, bertako jardueren instalazioengatik eta haiei lotutako azpiegiturengatik eta zerbitzuengatik. Zentzu horretan, alderdi positibo gisa, aipatu beharra dago Idiazabalgo HAPOan xedatutakoari lotuta, planak aukera ematen duela materializatzeke dagoen eraikigarritasun fisikoaren guztizkoa murriztea.

Hori dela eta, plan bereziak ahalbidetu egiten du nahitaez kontuan har daitezen dagoeneko gehienbat urbanizatuta dagoen eremu batean, eta Idiazabalgo HAPOan egindakoa baino era es-

— La Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco indica que en el ámbito del plan no se aprecian afecciones en el Patrimonio Cultural.

— La Dirección General de Cultura de la DFG informa que en el ámbito de intervención del plan especial se encuentra la Zona de Presunción Arqueológica del Caserío Eziolatzazpikoa, por lo que deberá cumplirse lo establecido en el art. 65 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco (estudio referente al valor arqueológico del solar o edificación y la incidencia que pueda tener el proyecto de obras).

— La Dirección de Patrimonio Natural y Cambio Climático del GV considera conveniente que la normativa urbanística de desarrollo incorpore en el título quinto (condicionantes de carácter ambiental y sectorial) medidas concretas para la protección de la vegetación de ribera (que se corresponde con el hábitat de interés comunitario prioritario 91E0* Bosque aluviales de Alnus glutinosa y Fraxinus excelsior).

— La Agencia Vasca del Agua (URA) comunica que, en virtud del principio de unidad y uniformidad en la gestión de la Demarcación, la consulta ha sido trasladada a la Confederación Hidrográfica del Cantábrico por si estima conveniente informar. En un segundo escrito informa que la actuación integrada propuesta en el plan especial se sitúa en la zona de policía del río Oria, y que se ha constatado que las alineaciones máximas propuestas para las nuevas edificaciones cumplen con los retiros establecidos en el PTS de Ordenación de los Ríos y Arroyos de la CAPV. Respecto a la inundabilidad indica que las parcelas con edificabilidad pendiente de ampliación se sitúan fuera de la zona inundable.

Por lo que se refiere al abastecimiento, indica que la Confederación Hidrográfica del Cantábrico, en el marco de la tramitación del PGOU de Idiazabal, emitió su preceptivo pronunciamiento en el que quedaba justificada la procedencia y disponibilidad de recursos hídricos para garantizar las demandas consecuentes de los desarrollos propuestos en el plan general. En relación con el saneamiento, señala que, además de las determinaciones ya previstas en la documentación, los planos correspondientes del plan especial deberán de delimitar la red de saneamiento existente y futura de las parcelas OB) EZ.01 y (OB) EZ.02, y que todas las actuaciones que afecten al DPH o se sitúen en sus zonas de servidumbre o policía requerirán la previa autorización administrativa del organismo de cuenca.

Aquellos aspectos señalados por las respuestas y aportaciones recibidas que inciden en los contenidos y objetivos propios del procedimiento de evaluación ambiental estratégica del plan especial se han analizado y tenido en cuenta en los distintos apartados de este informe ambiental estratégico.

Asimismo, todas las respuestas recibidas, y las que lleguen de forma posterior a la emisión de este informe, serán remitidas al Ayuntamiento de Idiazabal a fin de que, en su caso, sean tenidas en cuenta en la elaboración y tramitación del plan especial.

*4. Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013 de evaluación ambiental y en el anexo II.C de la Ley 10/2021 de Administración Ambiental de Euskadi.*

1. Características del plan especial:

El plan especial no supone un incremento significativo de nuevo suelo destinado a transformación urbanística respecto a la ordenación del PGOU vigente. Así, del total de los suelos presentes en el ámbito del plan especial, la gran mayoría se encuentra actualmente ya antropizados por las instalaciones de las actividades existentes y sus infraestructuras y servicios asociados. En este sentido, como aspecto positivo hay que mencionar que, en relación con lo dispuesto en el PGOU de Idiazabal, el plan posibilita una reducción de la edificabilidad física total pendiente de materializar.

Por tanto, el plan especial permite que se tengan preceptivamente en cuenta en un ámbito mayoritariamente ya urbanizado y de una forma más específica y pormenorizada que la lleva-

EK\CV GAO-I-2023-01841

pezifikoago eta xehakatuagoan, antolatzen dituen jardueren eta erabileren ezaugarrien, dimentsioen eta funtzionamenduaren barruan ukitutako ingurumen alderdiak, eta eraikuntzako baldintzak, eta behar besteko xehetasunez osatzea urbanizazio proiektuan eta eraikuntza eta eraikitze proiektuetan.

Plan bereziaren arabera, 2018an egindako urbanizazio publikoa bukatu eta osatu egin behar da, beharrezkoa baita Oria ibaiaren gaineko bi zubien arteko ibai ertzeko pasealekuari jarraitutasuna emateko. Horretarako, aurreikusi du plan berezian definitutako jarduketa integraturako urbanizazio plan bat idaztea eta onestea, dagoeneko egikaritutako urbanizazio obren eta egikaritzeko daudenen definizio teknikoa egingo duena. Zentzu horretan, baliteke urbanizazio proiektuari ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatuko prozedura aplikatu behar izatea, 21/2013 Legearen, abenduaren 9koaren, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoaren 7.2.a) artikuluan ezarritako inguruabarrak betetzeagatik, haren II. eranskineko 7. taldeko a) hizkiaren arabera, eta 10/2021 Legearen, abenduaren 9koaren, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoaren, 76.2. artikuluan ezarritako inguruabarrak betetzeagatik, haren II.E. eranskineko E.7. taldeko 7.a. apartatuaren arabera.

2. Eraginen eta ziurrenik ukituko den gunearen ezaugarriak:

Eremuan dauden ingurumen faktore nagusiei eta plan berezitik eratorritako jarduketetarako planteatutako antolamenduari dagokionez balioetsi beharreko eraginen eta arriskuen ezaugarriei dagokienez:

— Azaleko urak: Plan berezian ezarritako antolamendu proposamenek ez dakarte jarduketa zuzenik Oria ibaiaren ibilguan. Dagoen urbanizazioa osatzeko eta egokitzeko lanak egikaritzeko fasean (bidegorriaren inguruan, Oria ibaiaren eskuin ertzeko aparkalekuan eta abar) eta pabiloiak handitzeko obretan (AMPOren eraikin nagusiari dagokiona eta Kemen enpresari erosia eta abar), ibaiko uren kalitateari eragin dakioke (materialak arrastatuta, nahigabeko isurketen ondorioz eta abar), baina neurri egokiak hartuta (kontuz jardutea obrak egin bitartean, nahigabeko isurketak jasotzea eta ondo kudeatzea, solidoei eusteko sistemak lur mugimenduetan eta abar) inpaktu itzulgarritzat, berreskuragarritzat eta aldi baterakotzat jotzen da, garrantzi txikikotzat.

Funtzionamendu faseari dagokionez, plan bereziak oro har kontuan hartu beharko luke urbanizazio osagarriko proiektuak eta eraikuntza proiektuek jaso egin beharko dutela plan bereziak ahalbidetzen dituen jarduketa berrien saneamendu sarearen definizioa, eta euri urek eta saneamendukoek bereizita egon behar dutela, bi sare independentetan. Bereziki, aintzat hartu beharko da egin beharreko eraikuntza berriek enpresan dagoen arazketa sistemara edo egin beharreko sistema berrira konektatuta egon beharko dutela, ezarritako jardueren ezaugarrien arabera, edozein kasutan ere bermatzeko sortuko diren hondakin urak ondo tratatzen direla.

— Landaredia eta fauna: Jarduketaren xede izango den eremua hiri eremu batean dago, gehienbat antropizatuta eta eraldatuta, baina urbanizatu gabeko espazio gutxi batzuetan landaredia dago, gehienbat erruderal nitrofiloa. Oria ibaiarekin muga egiten duen gune longitudinalak soilik du erriberako landaredia, 91E0* Batasunaren intereseko habitatekoa (Alnus glutinosa eta Fraxinus excelsior ibarbasoak). Plan bereziak ez du aurreikusten dagoen landarediari eragingo dion zuzeneko jarduketarik, eta, breaz, landarediari ez dio inpaktu nabarmenik ekarriko. Nolanahi ere, ingurumen dokumentuan zehaztutakoez gain, planak ahal den heinean jaso beharko ditu Oria ibaiaren ibilguko erriberako landaredia suspertzeko neurriak (funtsean, ibaiaren eskuin eta ezker ertzetan, bidegorriaren berrurbanizazioari eta EZ 0.2. ere-

da a cabo en el PGOU de Idiazabal, el establecimiento y consideración de los aspectos ambientales afectados dentro de las características, las dimensiones y el funcionamiento de las actividades y usos que ordena así como a través del régimen de desarrollo y ejecución urbanísticos, y de las condiciones particulares de edificación, y que se completen con el nivel de detalle correspondiente en el proyecto de urbanización y en los proyectos de edificación y construcción.

El plan especial recoge que es necesario completar y complementar la urbanización pública que se realizó en 2018, al ser necesaria para dar continuidad al paseo de borde del río entre los dos puentes sobre el río Oria. Para ello prevé la redacción y aprobación de un proyecto de urbanización para la Actuación Integrada definida en el plan especial que recogerá la definición técnica tanto de las obras de urbanización ya ejecutadas como de aquellas pendientes de ejecución. En este sentido, el proyecto de urbanización podría estar sometido al procedimiento de evaluación de impacto ambiental simplificada al darse las circunstancias establecidas en el art. 7.2.a) de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, según la letra a) del grupo 7 de su anexo II, y las circunstancias establecidas en el artículo 76.2 de la Ley 10/2021, de 9 de diciembre, de Administración Ambiental de Euskadi, según el apartado 7.a del Grupo E.7 de su anexo II.E.

2. Características de los efectos y del área probablemente afectada:

Respecto a los principales factores ambientales existentes en el ámbito y las características de los efectos y de los riesgos a valorar respecto a la ordenación planteada para las actuaciones derivadas del plan especial:

— Aguas Superficiales: Las propuestas de ordenación establecidas en el plan especial no suponen actuación directa alguna sobre el cauce del río Oria. Durante la fase de ejecución de la complementación y adecuación de la urbanización existente (en la zona del bidegorri, en el aparcamiento de la margen derecha del río Oria, etc.) y las obras de ampliación de los pabellones (el correspondiente al edificio principal de AMPO y en el adquirido a la empresa Kemen, etc.), se puede afectar a la calidad de las aguas del río (por arrastres de materiales o vertidos accidentales, etc.) pero con la consideración de las medidas apropiadas (cuidado en el desarrollo de las obras, recogida y correcta gestión de vertidos accidentales, sistemas de retención de sólidos durante los movimientos de tierras, etc.) se considera un impacto reversible, recuperable y temporal, de magnitud poco significativa.

Por lo que se refiere a la fase de funcionamiento, el plan especial deberá de considerar de forma general que el proyecto de urbanización complementaria y los de edificación contemplen la definición de la red de saneamiento de las nuevas actividades que posibilita el plan especial, y que las aguas pluviales y de saneamiento deben estar separadas en dos redes independientes. De forma particular, se deberá de considerar que las nuevas edificaciones que se van a desarrollar cuenten, según las características de las actividades que se implanten, de una conexión al sistema de depuración existente en la empresa o al nuevo que sea necesario, para garantizar, en cualquier caso, el tratamiento adecuado de las aguas residuales que se van a generar.

— Vegetación y Fauna: El ámbito directo que va a ser objeto de actuación se centra en un ámbito de carácter urbano que está mayoritariamente ya antropizado y alterado, presentando en los pocos espacios no urbanizados una vegetación de carácter fundamentalmente ruderal nitrófila. Únicamente la zona longitudinal colindante con el cauce del río Oria presenta vegetación ribereña que se correspondería con el Hábitat de Interés Comunitario 91E0* (bosques aluviales de Alnus glutinosa y Fraxinus excelsior). El plan especial no plantea actuaciones directas que afecten a la vegetación existente, por lo que impactos sobre la vegetación no son significativos. En cualquier caso, además de las especificadas en el documento ambiental, el plan deberá contemplar en la medida que sea posible la recuperación de la

muko aparkalekuari lotuak, gehienbat), ezartzen dituen ingurumen helburuetara egokitutako neurri babesle eta zuzentzaile gisa.

Faunari dagokionez, aztertutako eremuan espero diren fauna komunitateak gune antropizatuetako komunitateak dira. Dena den, eremutik gertu bisoi europarrarentzako interes bereziko gune bat dago, eta eremuan bertan bisoi europarrarentzako lehentasunezko banaketa gune bat eta ferra saguzar handiarentzako eta Geoffrey saguzarrarentzako interes gune bat daude. Hortaz, kontuan hartuko dira plan bereziaren dokumentazioan planteatutako neurri zuzentzaileak, intereseko fauna espezie horiei ahalik eta eragin txikienak ekartzeko.

— Paisaia: Plan bereziaren eremua ibar lau bateko hondoan dago, eta trantsizio malda du ibaiaren ibilgurantz, dena den, izaera, funtsean, industriala du, eta eremu antropogenikoa da, egun pasaiaren kalitate eta hauskortasun ertaina duena. Ingurumen dokumentuak irizten dio ez dela eragin nabarmenik sortuko. Nolanahi ere, aurreikusi egin beharko da urbanizazio proiektuak eta eraikuntza eta eraikitze proiektuek ingurumen eta paisaia integrazioko neurriak eta eraikuntza jasangarrikoak jaso beharko dituztela, urbanizazioa eta eraikuntzak ingurumenean era egokian integratzeko hartu beharreko irizpideak eta neurriak ere bai.

— Ingurumen arriskuak: Uholde arriskuari dagokionez, eremu honetako zatirik handiena 500 urteko errepikatze denborako guneetan dago. Planaren dokumentazioaren arabera, handitzeke dagoen eraikigarritasuna duten partzelak (AMPOren eraikin nagusiaren mendebaldeko zatiarena eta Kemen enpresarena) uholde arriskuko gunetik kanpo daude, eta eraikuntza berrietarako EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSak ezarritako atzeratzeak betetzen dituzte.

Ildo horretan, baldin eta plan bereziko jarduketak planteatzen direnean errespetatu egiten badira Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduko 9. eta 14. artikuluan eta 1/2016 Errege Dekretuaren, urtarrilaren 8koaren, Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa onesten duenaren, 40. eta 41. artikuluetan ezarritako jabari publikoaren polizia guneetako erabileren mugak, eta kontuan hartzen bada 44. artikuluak urbanizatu beharreko guneetako drainatzeei buruz ezarritakoa, irizten zaio uholde arriskua bateragarria dela. Dena den, organo eskudunak (URA) egin beharko du azken balioespena, eta ezarri beharko ditu horren inguruko baldintzak.

Lurzoru kutsatuei dagokienez, plan bereziaren eremuaren zatirik handiena kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan jasota dago, eta plan bereziaren dokumentazioaren arabera badu dagoeneko Eusko Jaurlaritzak emandako lurzoruen adierazpena. Hala eta guztiz ere, orain plan berezian planteatutako eraikuntza berrien urbanizazio osagarriko eta eraikuntzako jarduketen ondorioz gertatzen bada 4/2015 Legearen, ekainaren 25ekoaren, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzekoaren, 23. artikuluan jasotako egoeraren bat, lurzoruaren kalitatearen adierazpena egin beharko da, edo dagoeneko emandakoa aldatu, baldin eta autonomia erkidegoko ingurumen organo jarduleak hala ebazten badu.

Azkenik, eremuak klima aldaketari lotutako beste arrisku batzuekiko duen zaurgarritasunari dagokionez, higaduraren eta/edo luizien intzidentzia, arrisku sismikoa eta akuiferoak kutsatzeko zaurgarritasuna txikitzat jo dira. Hala ere, plan bereziaren ingurumen dokumentazioan jasotako neurri zuzentzaileak aplikatu beharko dira.

— Soinu kalitatea: Plan bereziaren dokumentazioan, inpaktu akustikoaren azterketa bat dago, 213/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Hots Kutsadurari buruzkoan, ezarritakoari

vegetación riparia del cauce del río Oria a su paso por el ámbito (fundamentalmente en la margen derecha e izquierda del río y asociadas a la reurbanización del bidegorri y del aparcamiento de ámbito EZ 0.2), como medida protectora y correctora adecuada a los objetivos ambientales que considera.

Por lo que se refiere a la fauna, las comunidades faunísticas esperables en el ámbito interno de estudio son las asociadas a comunidades de áreas antropizadas. No obstante, cercana al ámbito hay un área de interés especial para el visón europeo y en el propio ámbito coincide una zona de distribución preferente para el visón europeo y un área de interés especial para el murciélago grande de herradura y el de Geoffrey. Por tanto, se tendrán en cuenta las medidas correctoras planteadas en la documentación del plan especial para minimizar los posibles efectos sobre estas especies faunísticas de interés.

— Paisaje: El ámbito del plan especial se encuentra en una zona de fondo de valle plano con una pendiente de transición hacia el cauce del río, pero con un carácter fundamentalmente industrial y dominio antropogénico que actualmente presenta una calidad y fragilidad paisajísticas media, en el que el documento ambiental considera que no se producen afecciones significativas. En cualquier caso, se deberá de prever la necesidad de que el proyecto de urbanización y los de edificación y construcción incorporen medidas de integración ambiental y paisajística y de edificación sostenible, que recojan los criterios y las medidas que se deben de adoptar para la adecuada integración ambiental de la urbanización y las edificaciones.

— Riesgos ambientales: Respecto a la inundabilidad, gran parte del este del ámbito está afectado por periodos de retorno de 500 años. Según la documentación del plan, las parcelas con edificabilidad pendiente de ampliación (la correspondiente a la parte oeste de edificio principal de AMPO y la de la empresa Kemen) se sitúan fuera de la zona inundable y cumplen con los retiros establecidos en el PTS de Ordenación de los Ríos y Arroyos de la CAPV para las nuevas edificaciones.

En este sentido, siempre que las actuaciones del plan especial se planteen respetando las limitaciones de usos en la zona de policía del dominio público establecidas en los artículos 9 y 14 del Reglamento del Dominio Público Hidráulico y en los art. 40 y 41 del Real Decreto 1/2016, de 8 de enero, por el que se aprueba el Plan Hidrológico del Cantábrico Oriental, y se tenga en cuenta lo dispuesto en el art. 44 respecto a los drenajes de las zonas a urbanizar, se considera que la inundabilidad presenta en principio un riesgo compatible, sin menoscabo de la valoración final y las condiciones que al respecto establezca el órgano competente al respecto (URA).

